

## II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

### ARAMAIOKO UDALA

#### **2019 urterako Trakzio Mekanikodun Ibilgailuen Gaineko zergaren errolda. Jendeaurreko erakusketa eta ordainaldia**

2019ko Trakzio Mekanikodun Ibilgailuen Gaineko Zergaren errolda egin ondoren jendarean jartzen da, iragarki hau ALHAOn argitaratzen den hurrengo egunetik kontatzen hasi eta 15 laneguneko epe barruan interesdunek aztertu eta egokitzat jotzen dituzten erreklamazioak udal bulegoetan aurkeztu ahal izateko.

Aipatutako epean erreklamaziorik aurkeztuko ez balitz, errolda behin betirako onartua ulertuko da.

Erreziboak ordaintzeko epea, lekuak eta medioak ondokoak dira:

a) Ordaintzeko borondatezko epealdia: 2019ko apirilaren 1etik 2019ko ekainaren 1era, biak barne.

b) Helbideratutako erreziboak, baimendutako finantza erakundeetan eta zergapekoak agindutako kontu korrontean zordunduko dira egun honetan: 2019ko maiatzaren 6a.

c) Helbideratu gabeko erreziboak, ostera, zergapekoek adierazitako zerga-helbideetara bidaliko ditugu, eta udalak dauzkan finantza entitate kolaboratzaileetako bulegoetan (Kutxabank eta Euskadiko Kutxa) egin beharko da ordainketa. Agiri hori eskura izan ezean edo 2019ko apirilaren 17rako jaso ez bada, udaletxean eskatu behar da borondatezko ordainketa aldian.

Aipatutako epea igaro ondoren, premiamendu prozedura betearazleari ekingo zaio eta ordaindu gabeko kuotak ehuneko 5eko gainkarguaz konbratuko dira, otsailaren 28ko 6/2005 Arabako Zergen Foru Arau Orokorren 28 artikulua xedatutakoari jarraituz.

Aramaion, 2019ko otsailaren 21ean

*Alkatea*

*LIERNI ALTUNA UGARTE*